

Aretxagazeta

ETA GAINERA...

Ze barri?

GAIA

Kontzejupe herri
plataforma
aurkeztu da /8

UDAL AURREKONTUAK
la sei milioi euroko
aurrekontuak /9

LEINTZ GATZAGA
Laura Pérez,
ludotekako begiralea /10

**Oraingo
astean
hasi dira
plazako
eraikin
nagusia
botatzen**



GUARDIAKOFARMAZIA

ZAPATUA, 22
FRAILE, J. Herriko Plaza 10. 943 79 21 99

DOMEKA, 23
FRAILE, J. Herriko Plaza 10. 943 79 21 99

TELEFONOJAKINGARRIAK

OROKORRAK	
Almen	943 71 49 07
ARETXAGAZETA	943 79 86 21
Faxa	943 77 18 54
Basotxo	943 77 09 81
Euskaltegia	943 79 21 68
Gizarite laguntzailea	943 71 18 62
Hezibide elkarte	934 79 31 32
Industrialdea	943 79 62 80
Institutua	943 79 79 00
Kirol etxea	943 71 26 28
Kultura etxea	943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
Kurtzebarri BHI	943 79 57 40
Liburutegia	943 71 18 62
Loramendi EE	943 77 09 70
Ludoteka	943 79 05 81
Mankomunitatea	943 79 30 90
Murruxio ME	943 79 93 74
Musika Eskola	943 79 36 50
Osasun etxea	943 71 19 59
Otalora	943 71 24 06
Parrokia (bulegoa)	943 79 18 42
Pausoka Haur Eskola	943 77 03 77
Postetxea	943 79 28 31
Santa Rita Ikastetxea	943 79 17 00
Saretxo	943 71 26 56
Taxi geltokia	943 79 22 33
Udal Bulegoak	943 71 18 62
Udaltzaingoa	943 71 18 63
Urats Gain	943 79 99 11

UDALTZAINGOA
Arrasate

LARRIALDIK
SOS Deiak

MEZAK

ANDRA MARIAREN ZERURATZE PARROKIA
Domeketan: 11:00, 12:00
Zapatuetan: 19:30
Hiletak: 19:00

SANTA RITA
Domeketan: 09:00
Zapatutan: 18:30
Lanegunetan: 19:00

BASERRI AUZOETAN: KORUETA
Domeketan: 12:30

MENDIOLA
Domeketan: 11:30

GELLAO/GALARTZA/IZURIETA
Hilabete honetan ez dago mezarik.

OHARRAK

SANTA AGEDA MUTILAK
Santa Ageda egunean hasi eta Aratuste-domekara bitartean, domekero egingo dute dantzan Santa Ageda mutilek, Herriko Plazan, 19:00etan.

PANPINA IKASTAROA
Panpina ikastaroa antolatatu du Udaleko Kultura Sailak. Goizez eta arratsaldez emango dituzte eskolak, errelebua lan egiten dutenak kontuan hartuta. Izena emateko kultura etxera joan behar da, eta 20 euro ordaindu.

INGERU GUARDA EGUNA
Martxoaren leian, Aingeru Guarda eguna ospatuko dute Basotxoko bazkideek. Eguerdi inguruan salda eta meza izango dira, eta ostean, bazkaria. Bazkarira joan gura dutenak Basotxon eman beharko dute izena 20 euroren truke.

ZURE OHAR ETA DEIALDIK ARETXAGAZETA-N
Aretxabaletarrei ohar bat jakinarazi gura badiezu, hemen duzu zure tarte egokia.
Deitu edo bidali zure oharrrak:
Tel.: 943 79 86 21
Faxa: 943 77 18 54
E-postaz:
aretxagazeta@goiena.com.

LORAMENDIRENAGENDA

IKASTAROKAK
Oraingo astean hasi dira eskulanen eta bainiken, patchwort-en, trapuzko panpinen eta bordatuen ikastaroak. Oraindik lekua dago guztietan.

SAGARDOTEGIRA IRTEERA
Martxoaren 15ean (zapatua) antolatuko dute irteera, Loramendiko lagunendako eta bazkideendako. Izena otsailaren 28a baino lehen eman behar da.

ORAINDELA 9URTEARETXABALETAN

Asier Guenetxeak garaipen bi Portugalen

Portugalgo A Capital txirrindulari lehiaketa Lisboa inguruan egiten da, eta 1994ko otsailean egindakoan garaipen bi lortu zituen Asier Guenetxeak. 1993an ere hartu zuen parte ziklista aretxabaletarrak, eta orduan, garaipen bat eta erregulartasunaren saria erdietsi zituen.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Txatata"

Edozein materialekin egindako adabakia, ipinkia, txaplata.
— Egur puxketa bat ero, beste erozer gauza, txataltxo bat.



ZORIONAGURRAK



ESKORIATZA
Jon Andoni García
5ean, urtebete. Zorionak eta muxu handi bat, etxe-koen partetik.



ESKORIATZA
Ioritz Díaz de Gereñu
13an, 5 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxe-koen partetik.



ESKORIATZA
Ana Expósito
13an. Zorionak eta urte askotarako, etxe-ko guztien partetik.



ESKORIATZA
Unai Bastardo
14an. Zorionak eta muxu handi bat, gurasoen eta Nerearen partetik.



ARETXABALETA
Joseba Akizu
17an, 12 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxe-ko guztien partetik.



ARETXABALETA
Ainhoa Calleja
18an. Zorionak eta urte askotarako, etxe-ko guztien partetik.




ESKORIATZA
Iker Pérez
21ean. Zorionak eta urte askotarako, etxe-ko guztien partetik.



ARETXABALETA
Lorea Iturricastillo
20an. Zorionak eta muxu handi bat, gurasoen, ahizpen eta loben partetik.



ESKORIATZA
Lide Crespo
23an, 3 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxe-ko guztien partetik.



ESKORIATZA
Asier Urzelai
23an, 5 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxe-ko guztien partetik.

LIBURUTEGIKOTXOKOA

'De Túbal a Aitor'

Euskal Herriko historia lau ataletan banatu dute bost historialariren artean egin duten historia liburu mardul honetan. Lehen atalak prehistoriatik erromatar inperioaren amaiera arte hartzen du; bigarrenak, garai ilunetatik Foru garaira (V-XVI mendeak); hirugarrenak, 1602-1876 urteak; laugarrenak, gaur egungo aroa (1876-1979). Bosgarren bat ere badakar, bibliografiari zuzendua.



DE TÚBAL A AIOR: HISTORIA DE VASCONIA

Eliseo Gil...
La esfera de los libros
749 orrialde

Egoera politikoaz gain, demografia, ekonomia, bizimoduak eta beste zenbait arlo jorratzen dira, ikuspegi zabalak eskainita. Euskal Herriko historia oso-osorik edo tarte baten ezagutzeko aukera ematen digu liburuak.

JOSEBA LOPEZ DE ARMENTIA

Lasai
Mirian Manteca masajista
Lezama Zentru Komertziala
Santa Kurtz 24, etxabea ARETXABALETA
Tel.: 943 77 04 34

- Masaje terapeutikoa
- Posturen azterketan eta egokiratzean diplomaduna
- Osteopatia: Kraneala, Estrukturala, Funtzionala
- Lotura muskularrak

Angelines AUTOZERBITZUA
Frutan eta txarkuterian espezialitatea
Mitarte, 16 • 943 79 61 42
ARETXABALETA

BENGOA URDAITEGIA
Bertako okelak eta mortzilak
Durana, 9. Aretxabaleta
Tel.: 943 79 19 79

ANDRA MARI
Aholkularitza
- Fiskala
- Kontablea
- Juridiko/laborala
Andra Mari Auzunea, 3
ARETXABALETA
Tel. 943 79 29 26


ATREBENTZIAEZPADA/ Herrixen Interneten ibiltzeko KZGunie jarriko daue. Ze pentsetan jatzu?



MARIO UNANUE
Langillie



GEMA REMENTERIA
Langillie



JOSE ANJEL ANTIXIA
Langillie



JOSE MANUEL URRUTIA
Langillie



MERCHE GONZÁLEZ
Langillie



LEO HERRERO
Langillie

Ez dakit, oin modan dauz Internet eta holako gauzak, eta idea ona dala pentsetan jat. Neu fabrian ibiltzen nazi apur bat, etxien gutxi. Baiñe etxien eukitte, ez naz KZGunera fango.

Oso ondo. Neu oso txarra naz ordenadorie ibiltten. Behin, Interneten ibiltzeko eskolak hartu nittuen, baiñe ez dot ondiokan ikesi. KZGunie aukera ona izen leike ikesteko.

Ondo pentsetan jat Aretxabaletan be Interneten ikesteko holako aukera bat emutie. Egixe esan, ez naz oin arte Interneten ibilli, baiñe asmue neuken ikesten hasteko.

Ondo etorriko da. Neuk etxien badauket Internet, baiñe emaztiak badauko KZGunera fateko asmue. Ondiokan ez dau ikesi Interneten ibiltten, eta han eskolak hartzeko asmue dauko.

Oso ondo. Gaur egungo umiek askotan laguntza biher izeten daue eskolako lanak egitteko, eta gurasuok Internet ibillite emun geuskie hori laguntzioi. KZGunera fango naz, bai.

Ondo pentsetan jat holako gauzak jartie, baiñe ez dot uste KZGunera juengo nazenik, txarto konponketan naz-eta ordenadoriekin. Dana dala, ikesteko aukera emutie ondo dau.

TXALOAK ETATXISTUAK



TXALOAK BABES NEURRI EGOKIEI Herriko Plazan astean hasi dira Kurtzebarri Eskolako eraikina zaharberritzeko lanak egiten. Guztiok dakigu Herriko Plazan ume ugari ibiltzen direla jolasean. Horregatik, lanok arriskurik sor ez dezaten, neurri egokiak hartu dituzte langileek. Hortaz, txaloak, oraingo astean, Herriko Plazan guztion segurtasunerako jarri dituzte hesi handiei. /A.L.

ETABARRUAN...

INFORMATIKA /04

Laster KZGunea Aretxabaletan

Martxoaren erdi inguruan zabalduko dute KZGunea herrian. Interneten zela ibili erakutsiko dute.

HEZKUNTZA /05

Plazako eraikina botatzen

Oraingo astean ibili dira plazako eraikinaren ingurua ixten, ostean, botatzen hasteko.

KIROLA /06

Trialsin txapelketa

Etzi, domeka, Gipuzkoako Trialsin Txapelketa hirugarren jardunaldia jokatu da herrian.

ASTEKODATUA

15

CURRICULUM JASO DITUZTE KZGUNERAKO

Denera, 15 lagunek aurkeztu dute curriculuma KZGunean lan egiteko. Horietatik, 12 aretxabale-tarrak dira eta hiru arrasatear-rak. KZGunean langile bi ibiliko dira martxotik aurrera lanean.

BESTEKEKESANA

“Espanyolek baino hobeto jokatu genuen eta partidu osoan gu izan ginen nagusi, baina azken bultzada falta izan zitzaigun; horregatik, ezin izan genituen aprobetxatu gola egiteko aukerak. Futbola golak sartzean datza, eta horixe izan zen partidua irabazteko falta izan zitzaigun bakarra.

Jokatzen duzunean gero eta hobeto zaude, eta gainera, hamaika-koan egongo zarela koan lan gehiago egiten saiatzen zara. Arrazoi horregatik, beharbada, lehenago ez nintzen orain beste gertatzen.

Etetik kanpo galtzea ez da delitua. Domekan, aurkaria baino talde hobeia izan ginen, baina ez genituen izandako aukera guztiak aprobetxatu. Jardunaldia ez zen horren txarra izan.

JOSE JAVIER BARKERO
‘El Diario Vasco’/03-02-11

HERRITARRENBERBAK/ Arantxa Jaka



Poesiaren beharra

Iritzitzi artikulua prestatzeko gaia aukeratu behar, baina azkenaldi honetan antzeko gai garratzak eta beltzak (“chapapotea” barne delarik) datozkigu begitara, ahotara, bihotzera... eta ezin heldu bati bakarrik: gure herrian dagoen giro zaila, kostaldeak, Irak, Venezuela, Kolonia, emakumeen hilketak... Egoera ezberdinak baina emaitza berdina: heriotza (pertsonea, ekologiarena, gizartearena). Eta guzti hau gutxi balitz, orain dela egun batzuk egunkariaren azalean irakurri nuen munduko ardi ospetsuena, gure ardi klonikoa, Dolly, hil behar izan dutela “defektoak” zeuzkalako. Farra egin, triste jarri, etsita gelditu... Erantzuna bezala galdera sortzen zait: Noraino goaz?.

Gauzak, sistemak, planteamenduak... ez doaz ondo. Zatiketaren ahotsa gehiegi entzuten da gure artean, oreka eta armoniak ez dute gehiegi

funtzionatzen: ezin gara elkar konpondu, edota konpontzeko borondate gehiegirik ez da ikusten.

Baina, hau guzti hau horrela izanik ez dugu etsi behar; gure ingurutik hasita, bizia ereiten jarraitu behar dugu. Inoiz baino ozenkiago altxa behar dugu ahotsa biziaren alde. Bizia opari eder bat da.

Gaur egungo munduak poesiaren beharra dauka, inguratzen duen gehiegizko arrazionaltasuna alde batera utziaz”

Nik ere behar hori sentitzen dut. Eta zer da poesia? Ez da ez, paper baten gainean lerro eder batzuk idaztea. Hori baino zerbait gehiago da.

Poesia da konturatzea inguratzen gaituen guztiak hitz egiten digula, mezu bat dakarkigula, elkarren beharra daukagula, sentipenak guztiok daukagula, ametsak posible direla...

Haize berriak behar ditugu, ur fresko pixka bat!

Aretxagazeta

Durana 11
20550 ARETXABALETA
Tel.: 943 79 86 21
Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA
Aintzane Gardoki

ERREDAKZIOA
Mirari Altube
Amagoia Lasagabaster

MAKETAZIOA
Goio Arana

PUBLIZITATEA
Ziortza Martín

ZUZENTZAILA
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA
SS-378-94

ISSN
1134-2609

TIRADA
4.100 ale

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jauriaritzako
Kultura Saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Aretxabaleta
Udalak



Eskoriatza
Udalak



Leintz Gatzagako
Udalak



BESTEAKBESTE

M. J. Aretxaga

Behi kontuak

Telebistari, irratitari eta prentsari esker jakiten ditugu hainbat eta hainbat kontu. Gertu gertukoak ere bai sarritan. Aurrekoan ETBko *Sustrai*a programan Arientzako **Abasolotarrak** eta baserriko bizimodua ezagutzeko aukera izan nuen. Lehenago ere entzunda nuen oso metodo aurrerakoiekin lan egiten dutela. Behiak jezteko robotak dituzte, eta ia guztia egiten du robotak, errapea bilatu, garbitu, esnea atera... Behiari erakutsi egin behar bere lekura joaten, baina behin erakutsitakoan lana asko aurreratzen ei da. Egunean egotea beharrezkoa da edozein lanetan, baita baserri munduan ere, bestela akabo.

Egunean egoteko Internet ere gero eta beharrezkoagoa da, eta laster denok izango dugu konektatzeko aukera. KZGunea jarriko da herrian, eta horri esker, Internet eta gai horren inguruan dagoen guztia ezagutzeko aukera izango dugu. Ez utzi aukera alperrik galtzen, hauxe izan daiteke beldurrak kendu eta sarean barneratzeko aukera.

Eta bukatzeko gogoan izan aratusteak gainean ditugula. Badakit, jakin ere, koadrilak mozorroa prestatzen dabiltzala han eta hemen. Neuk ere prestatu beharko dut...

INFORMATIKA/ Zortzi ordenagailu egongo dira trebakuntzarako eta lau nabigatzeko

Martxoaren erdi inguruan zabalduko dute KZGunea herrian

MIRARI ALTUBE

Aretxabaletan ere, ibarreko hainbat herritan moduan, KZGunea izango dugu hilabete barru. Markole auzunean dabilta ordenagailuendako egoitza prestatzen, eta guztira 12 ordenagailu egongo dira: zortzi trebakuntzarako eta lau nabigatzeko.

Udaleko Kultura Sailak kudeatuko du Aretxabaletan Eusko Jaurlaritzak abian jarritako Konekta Zaitetz egitasmoa. Martxoaren erdi inguruan zabalduko ditu ateak Markole auzunean egongo den KZGuneak.

HAMABI ORDENAGAILU ETA BEGIRALE BI Markole auzunean, Ibarra futbol zelai parean, dabilta langileak KZGunearendako egoitza prestatzen. Lanak aurreratuta dauden arren, oraindik ez dituzte guztiz bukatu.

KZGuneak Internet ezagutzeko aukera emango die herritarrei. Internetez ezer ez dakitendako taldeak osatu eta ikastaroak antolatuko dituzte. Hain zuzen, zortzi ordenagailu egongo dira trebakuntzarako eta lau nabigatzeko; begirale bi ere egongo dira, nabigatzaileei laguntzeko.



Martxotik aurrera Aretxabaletan ere izango dugu KZGunea.

Euskal Autonomia Erkidegoan 180 KZGune baino gehiago daude. Laster, Aretxabaletan ere

izango dugu, eta KZko txartela ateratzen dutenek edozein gunetan ibiltzeko aukera izango dute.



Aretxa plataforma aurkeztu zuten zapatuan herrian

Joan den zapatuan, hilaren 15ean, Aretxa herri plataforma aurkeztu zuten Aretxabaletan. Autodeterminazioaren alde lan egiteko, baldintza demokratikoen falta salatuz eta Euskal Herri ezkertiarra erakitze asmoarekin sortu dute plataforma. Aurkezpena txistu eta trikiti doinuekin egin zuten, eta hotz egiten zuen arren, ehun lagunetik gora batu ziren plataforma berriari babesa emateko./M.A.

LABUR

Gerrako presoek laguntzak emateko epea, bukatzeaz

Gerra garaian preso egonda-ko herritarrei dirulaguntzak emateko ekimena jarri zuen abian Eusko Jaurlaritzak orain dela aste batzuk. Aretxabaletako Udaleko Ongizate Saileko arduradunek horren inguruko informazio guztia daukate, eta eskaera egiteko bete behar den inprimakiarekin batera laguntza ere ematen dute.

Dirulaguntzak eskatzeko epea otsailaren 28an bukatuko da; hortaz, agudo ibili eskatzekotan zaudetenok.

Urbasco enpresa eraikitzaileak bulegoa zabalduko du

Beroa lantegia egon zen lekuan Gasteizko Urbasco enpresa eraikitzaileak 130 etxebizitza egiteko asmoa dauka. Hainbat eratako etxeak izango dira bi, hiru eta lau gela dituztenak, eta duplexak ere egongo dira. Horren guztiaren inguruko informazioa emateko bulegoa zabalduko du Urbascok Belorrieta auzoan, Beroa parean hain zuzen.

Lubia
oinetakoak

beherapenak!

Mitarte 14 • 943 79 16 00 ARETXABALETA
Biteri 1 • 943 79 66 53 ARRASATE

**OSKAR
GARAJEA**

Tel.: 943 79 98 74
Fax: 943 71 24 59
Basabe Poligonoa, A-2-4
ARETXABALETA

IBARRA
estankoa



PRENTSA ETA
IKASMATERIALA

Egunero zabalik

Bizkaia, 3 Tel.: 943 79 23 77
ARETXABALETA

GARBITU S. KOOP

*Garbiketa
orokorrak*

Errekabarren 3- Behea
ARETXABALETA
Tel: 943 79 01 28



Egurrezko hesiarekin itxiko dute udaletxe izandako eraikinaren inguru guztia, lanek irauten duten bitartean.

HEZKUNTZA/ Kurtzebarri Eskolako DBHko gelak egongo dira 2004-2005 ikasturtetik aurrera

Azkenean hasi dira udaletxea izan zen plazako eraikina botatzen

MIRARI ALTUBE

Oraingo astean bertan hasi dira Herriko Plazako eraikina konpontzen hasteko prestaketa lanak egiten. Gero, poliki-poliki bota beharko dute, segurtasun neurri handiak hartuta, eta bota ostean, 14 hilabete inguru beharko dituzte eskolako ikasgelak eraikitzeko.

Plazako eraikina eskola bihurtzeko lanak asko atzeratu dira. Arrazoi asko egon dira, hasierako proiektuan aldaketak eta lanak ezin adjudikatu tartean, baina azkenean hasi dira udaletxe izandako eraikina botatzeko prestaketa lanak egiten.

POLIKI-POLIKI BOTAKO DUTE

Segurtasun neurri handiak hartuz behartuta dago enpresa eraiki-

kitzailea; izan ere, bai Kurtzebarri Eskola inguruan, bai plazan ume asko ibiltzen dira. Hori dela eta, eraikinaren inguru guztia egurrezko hesiarekin ixten dabilta. Behin hori eginda, beste hilabete eta erdi beharko dute Azpeitiko Altxabar enpresako langileek eraikina botatzeko. Goitik behera hasiko dira, eta lehenengo solairura heldu artean, langileek euren eskuekin kenduko dituzte harriak. Lehenengo solairura heltzerakoan baino ez dira hasiko indusketa-makinak lanean. Udaletxe izandako eraikina, gainera, guneko historikoan dago, eta, horren ondorioz, kanpoko itxura ezin izango diote aldatu.

SARITUAK

Aretxabaleto Udalak aspaldi utzi zion plazako eraikina Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari.

Hark proiektua azkar egin zuen arren, lanak adjudikatzeko orduan arazo ugari izan zituen. Azkenean Altxabar enpresa erakitzaileak hartu zuen ia milioi eta erdi euroko aurrekontua duen lanen ardura.

Bota ostean, 14 hilabete inguru beharko dituzte Kurtzebarri Eskolako DBHko ikasleendako ikasgelak egiteko. Oso pozik daude, gainera, Kurtzebarri Eskolako arduradunak egindako proiektuarekin: "Eusko Jaurlaritzarekin adostutako proiektua da, eta oso gustura gaude emaitzarekin", dio Resu Abasolo irakasleak.

2004-2005 ikasturterako bertan izango dute ikasteko lekua 12 eta 16 urte bitarteko neska-mutikoen. Hamabi ikasgelaz gainera, teknologia lantegia, areto handia, plastikako gela eta liburutegia ere izango ditu eskola berriak.

LABUR

Korrika batzordea osatuko dute astelehenean, Korrikaren gaineko guztia antolatzeko

Geroago eta gutxiago falta da Korrika 13 abian jartzeko: apirilaren 4an hasiko da, Maulen. Aretxabaleto Korrika batzordea osatu gura dute; hori dela eta, astelehenean, hilaren 24an, batzarra egingo dute Loramendi EEn, 19:00etan, Herriko elkarteei gonbidapena bidali diete, baina edozein herritarrek izango ditu ateak zabalik batzordean parte hartzeko. Korrikaren gaineko guztia antolatuko du batzorde horrek: ibilbidea, egutegia, materialaren banaketa, Korrika Kulturaleko ekitaldiak... Hortaz, parte hartu!

Horren harira, Korrikako metro sinbolikoak salgai dituzte Loramendi EEn, 10 euroren truke, eta erosiz gero, Korrikako pina eta txartela ematen dituzte. Txartelarekin, denda, zinema areto eta beste hainbat lekutan beherapenak egiten dituzte.

Gazte Asanbladako gazteak alkatearen erantzunaren zain daude


Joan den egunean, hilaren 13an, Gazte Asanbladak batzar berezia egin zuen. Gaztetxearen egoera izan zuten aztergai. Urtaurilaren 27a ezker argindar barik daude gaztetxean, eta behin baino gehiagotan alkatearekin berba egiten ahalegindu diren arren, ez dute lortu. Anjel Bergaretxeren esanetan, gaztetxetik irten aurretik ez du Gazte Asanbladako kideekin berbarik egingo, baina azken horiek, berriz, ez dute gaztetxetik joan gura.

Gauzak horrela, joan den astean, beste gutun bat bidali zioten Anjeli, eta oraingoz zain daude. Horren haritik, joan den eguneko batzar berezian esan zuten gaztetxearen berri emateko herrian kalejira egiteko asmoa dutela. Oraindik ez dute ezer erabakita.



González de Txabarri egon zen batzokian

Domekan, hilaren 16an, Jose Juan González de Txabarri EAJ-ko parlamentaria egon zen Aretxabaleto. Batzokiaren IX. urteurrena aitzakia hartuta antolatu zuten hitzaldia, eta Euskal Herrian azken egunotan gertatutakoak izan zituen hizpide. Joseba Pagazaurtunduaren hilketaren osteko balorazioa egin zuen, eta Sozialista Abertzaleei eta PSOeri jarrera aldatzeko eskatu zien. Udal hauteskundeak ere aipatu zituen, eta azken hauteskundeetako emaitzak berriro lortzeko asmoa ei dute.



- Kontabilitatea
- Fiskalitatea
- Lana
- Juridikoa

Aholkularitza

Basabe poligonoa, F-O-10 (1. solairua) ARETXABALETA
Tel.: 943 71 21 12 - Fax: 943 71 22 68

Iber

- ★ Loteria ★
- ✿ Paperdenda ✿
- ✱ Liburuak ✱

Otalora 2.
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 04 39

Jauregi Okindegia

Otalora, 10
Tel.: 943 79 57 47
ARETXABALETA

IRIARTE

Umeen
denda
•
Helduen
lentzeria



Durana, 8
Tel.: 943 79 10 96
ARETXABALETA

GIPUZKOAKO TRIALSIN TXAPELKETA

Gipuzkoako Trialsin Txapelketako hirugarren jardunaldia, bihar

Markel eta Nagore Uriarte anai-arreba aretxabaletarrek hartuko dute parte txapelketan

AMAGIOIA LASAGABASTER

Domekan, hilaren 23an, Gipuzkoako Trialsin Txapelketako proba jokatu dute Aretxabaletan. Porrurutxan eta hango inguruetan jarriko dituzte parte hartzaileek bizikletarekin gaintu beharreko oztopo-guneak. Lehen probak 10:30ean izango dira.

Gipuzkoako trialsin-zaleek hitzordu garrantzitsua izango dute oraingo domekan, hilaren 23an, Aretxabaletan. Izan ere, egun horretan, 2003ko Gipuzkoako Trialsin Txapelketako hirugarren proba jokatu dute Porrurutxa aldean.

PROBAK ETA ERAKUSTALDIA

Txapelketak hiru zati izango ditu: lehenengo probak, 10:30ean hasiko direnak, 12 urtetik beherakoendako izango dira. Maila horretan, Txirringularitzako Federazioak utziko dizkie parte-hartzaileei kaskoa eta bizikleta; gero, txapelketa ofiziala hasiko da. Proba horietan, alebinak, emakumezkoak, infantilak eta gazteak ibiliko dira lehian. Trialsin-



ARTXIBOA

Oraingo domekan, jende ugari hurreratuko da Porrurutxako zelai eta basoetara.

lasterkariak Porrurutxa aldean jarriko dituzten bost oztopo-gune gaintu beharko dituzte; eta, azkenik, Benito Rosek, txapelketan lehenengo postuan dagoenak, jendaurreko erakustaldia egingo du motoarekin.

ARETXABALETAR BI

Aurten, Gipuzkoako Txapelketan Nagore eta Markel Uriarte anai-arreba aretxabaletarrak dabilta lehian. Biak ere, une honetan, txapelketako sailkapenean hirugarren daude.

XAKEA

Arlutz Xake Taldeko jokalariek ohorezko mailan jokatu dute hurrengo denboraldian

Arlutzek dagoeneko amaitu du Euskal B liga. Joan den domekan, hilaren 16an, jokatu zuen azken partida. Gainerako taldeei, ordea, oraingo asteburuan jokatu duten jardunaldia falta zaie liga amaitzeko. Arlutzek berdindu egin zuen San Viator taldearen aurka aurre-ratutako partida (2-2). Hala ere, aretxabaletarrek txapelketa ona jokatu dute, eta hurrengo denboraldian ohorezko ligan ibiliko dira.

ESKI IRTEERA

Murrukixo Mendizale Elkartekoak Luz Ardidenera eskiatzera joango dira bihar

Murrukixo Mendizale Elkartekoak Luz Ardidenera eskiatzera joango dira bihar, hilak 22. Autobusa 05:00etan irtengo da, AZBEko autobus geltokitik. Aurten, 55 lagun joango dira eskiatzera, iaiz baino dezenteko gehiago. Murrukixokoek Luz Ardidenerako bidaia antolatu dute, baina eguraldiak lagunduz gero, La Mongien ere ibiliko dira eskiatzen. Herrira domeka iluntzean itzuliko dira.

PARTIDUAK

FUTBOLA

UDA-Añorga
Infantilak.
Zapatua. 11:30. Ibarra.
UDA-Gazteak
Bigarren mailako erregionala.
Domeka. 16:30. Ibarra.

PILOTA

Aretxab.-Añorga
Gazteak.
Egubakoitza. 19:00. Iturrigorri.
Aretxab.-Ikas berri
Nagusiak.
Zapatua. 18:00. Iturrigorri.

EMAITZAK

FUTBOLA

UDA 2 Aloña 0
Preferentea.
UDA 0 Burumendi 2
Gazteen Euskal Liga.
Arrate 0 UDA 2
Bigarren mailako erregionala.
Intxurre 2 UDA/Almen (b) 0 Seniorrak.
Bigarren mailako gazteak.
Tolosa 1 UDA 2
Lehenengo mailako kadeteak.
UDA 2 Ikasberri 1
Bigarren mailako kadeteak.

PILOTA

Lazkao 22 Aretxab. 17
Gazteak.
Aretxab. 22 Usurbil 2
Gazteak.
Usurbil 22 Aretxab. 8
Usurbil 22 Aretxab. 17

Mountain Hard Wear
Millet
Ternua
Salewa
Solo
Tuckland
Salomon
Peltz
Boreal
Asole
Ferrino
Vaude
Garmin
Magellan
Neak
Coleman
Grivel
Rossignol
Atomic
Fischer
Nordica
Länge
Head
Salomon
Dynastarey
Skitrab
Pink
Lowa
Scarpa
K2
Otcha



www.forumsport.com

SPORTLAND
FORUM SHOPS

KIROLA ZEURE ESKURA

Garibai Etorbidea, 2-6
20500 Arrasate. Gipuzkoa
Tef. 943 77 30 72

ARETXABALETARRAKMUNDUAN

FERNANDO LASAGABASTER

53 URTE / INGENIARIA / FORLÍ (ITALIA)

“Italiako langileekin eurekin egiteko dagoen lana da benetan polita”

MIRARI ALTUBE

Fernando Lasagabaster Copreci lantegitik joan zen Bolognatik oso geru dagoen ForlÍ hirira, orain dela urte eta erdi, eta benetan gustura dago Italian: “Coprecik lantegi bi ditu Italian: bata, Venezia alboan eta bestea, Forlín. Hemen neu naiz euskaldun bakarra”, diosku Fernandok.

Kultura ezberdina, beste hizkuntza bat, pentsaera guztiz ezberdina eta bakar-bakarrik. Horrek, ordea, ikasteko gogoia suspertu dio Fernandori, eta dagoeneko ondo moldatzen da italiarekin ere: “Ulertzeko nahiko samurra da, berba egitea gaitzagoa, baina beste erremediorik ez dagoenean, beharko ikasi!”. Italiarren bizimodua ere guztiz ezberdina ei da, bakoitzak bereari begiratzen dio eta ez dago lagunartean egoteko ohi-turirik: “Dagoeneko badauzkat lagunak, eta lane-tik irten ostean zerbait hartzera joan ohi gara. Hala ere, ez da sortzen euskaldunon artean izaten dugun girorik, ezta gutxiago ere!”. Lan egiteko



era ere ezberdina ei da: “Lan polita daukat eta gustura nabil, baina langileekin eurekin egiteko dagoen lana da benetan polita”.

Aste barruan Forlín egon

“Italiarren artean ez da sortzen euskaldunon artean izaten dugun girorik”

beharra dauka, baina aste bukaerak heltzen direnean, ez du inork etxean harrapatuko: “Italia erdi-erdian nago, eta horrek hara eta hona ibiltzeko aukera ematen dit. Veneziaara ordu bi, Florentziara ordubete, San Marino ere bertan dago, kostaldea... Eta herri txikiak ere zoragarriak dira. Apenino mendiak eurak ere ordu erdira dauzkat, eta osteratxo bat egiteko ibilbide bat baino gehiago dakit”. Hortaz, Italia eza-gutu gura duenari gustura erakutsiko dio Fernandok.

HURRETIK



Josu Zaloña

Loramendi Eeko koordinadorie

Soziologixan lizentziaue da eta laster, Humanidade eta Enpresak ikasketetan be bai. Goixetan MUKO bekarixo ibiltten da Eskoriatzan eta arratsaldietan Loramendi Eeko koordinadore.

Zein izengo da zure lana Loramendin? Kultura ekintzak aurrera eruetie, batez be, eta gero, ekintza barrixek asmetie. Ze dauketzu oin esku artien? Hamendik eta ekaiñera bittartien egingo dittugun kultura ekintzak antolaketan nabil: diapositiba emunaldixek...

Idazteko ze dozu gurago, euskera batue ala euskalkixe? Batue, euskalkixen ez dakit maillarik daukogun...

Jairik gustokuenak? San Migelak.

Txino dantzie sekule egin dozu? Ez. Arrebiek bai, baiñe neuk ez.

Zelakue da aretxabaletarren euskerie? Txarra danik ez neuke esango; bokabularixue, behintzet, aberatsa da.

Euskal Herrian Euskarazek badauko lekurik Loramendi egonda? Bai. Loramendi kultura ekintzen bittartez ahaleginketan da euskerie bultzaketan; EHEk, barriz, reibindikaziño aspektue lanketan dau.

Udalerako hautagaixek euskeraz jakin biherko leukie? Bai. Jakin, behintzet, bai; gero zein maila daukien...

Aretxabaletan badau euskeraz ez daki-xen 30 urtetik beherakorik? Ez leuke zertan egon, baiñe egongo da.

Kanpotik datozenie euskerie ikestie exijidu biher jakue? Obligau ez; aukerie emun, eta ikusi dai-xiela euskerie baliagarrixue izengo dala eurendako be.

Ze falta da Aretxabaletan? Kultura ekintzetarako bittartekuek.

M. A.

NIREBIDAIAHURA/ Irma Arabaolaza

Zeelanda Berria / 2003ko otsaila

Australia atzean utzi, eta dagoeneko Zeelanda Berrian dugu Irma. Auckland hirian bertako lagun batekin egin zuen tril, eta inguru guztia erakutsi zion: “Auckland hiriak portu bi ditu, eta hiriko bizimodua itsasoaren inguruan dago antolatuta. Inguru guztian, gainera, uharteak ditu; handiena Great Barrier Island da, 1.000 lagun baino ez dira bizi”, dio Irmak.

Maoriak dira Zeelanda Berriko bizilagunak, eta euren gaineko zerbait jakiteko Aucklandeko museora hurreratu zen Irma: “Maorien inguruko ekitalditxo bat ikusi nuen: euren hizkuntza, dantzak, kantuak, kirolak... Denetik erakutsi ziguten, eta benetan interesgarria izan zen. Zeelanda Berrian maorien egoera ez da Australian aborigenena bezain txarra, nahiz eta hemen ere arazoak izan”.



Zeelanda Berrian ikusgarriena paisaia da. Mendiak, lakuak, uharteak, geyserrak, ur sufretsuzko errekatxoak, zuhaitzak, animaliak... oso orijinalak ei dira, eta bertan baino ezin dira aurkitu: “Ikusgarriak dira harea beltza duten hondartzak; Xena eta Hercules telesailak bertan grabatu zituzten”. Tane Matua izeneko zuhaitza ere aipatu beharrekoa da: kauri familiakoa da, 2.000 urte ditu eta 15 metroko perimetroa du.

Iparraldea ezagutzeko asmoarekin Bay of Islands hirira joan ziren. Han belaontzi bat hartu, eta uharte batetik bestera ibili ziren lau egunean: “Paradisua zen hura, para-je benetan lasaia, gizakiak ia ukitu ere egin bakoa”.

Zeelanda Berriko bizilagunak oso lasaiak dira, Irmaren esanetan: “Natura eta kirola dute gustuko, errugbia eta cricketa, batez ere. Familiarekin edo lagunekin barbakoa inguruan batzea ere estimatzen dute, garagardoa eta ardoa tartean dagoela, betiere”.

M. A.



Maorien kultura ezagutzeko aukera izan zuen Irmak Zeelanda Berrian.

JAR EZAZU HEMEN ZURE PUBLIZITATEA

Aretxagazeta

Jou Díaz
Harakina

Loramendi, 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

PAGALDAI

Opari denda
Lurrindegia

Durana, 33 • Aretxabaleta
943 79 10 14

Mobiliario
ARENZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

Mortin
erloju-denda

Bere bezeroen zerbizura

Mitarte, 16
Tel.: 943 79 01 72
ARETXABALETA

Zebarri?

U R L A T I K L A N D E T A R A

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2003ko otsailaren 21a / 114. zenbakia

• KOORDINATZAILEA: Aintzane Gardoki • Durana 11 20550 ARETXABAETA • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com • Lege gordailua: SS200/99

Kontzejupe herri plataforma aurkeztu zuten joan den asteburuan herrian

AINTZANE GARDOKI

Joan den zapatuan, hilaren 15ean, herritar ugari elkartu ziren Herriko Plazan Kontzejupe herri plataforma berriari laguntza eta babes adierazteko. Herriaren alde lan egin gura duen plataforma dinamikoa izan gura du Kontzejupek. Hiru dira plataformaren zutabe nagusiak.

Egungo salbuespen egoera salaztea eta eskubide demokratikoak aldarrikatzea, autodeterminazioa defendatzea eta ideia ezkertiarak herrian bultzatzea ditu helburu nagusi sortu berri den Kontzejupe herri plataformak.

“Euskal Herriak bizi duen salbuespen egoeran, ezkertiar eta abertzale sentitzen garenoi hitza, erabakia eta izatea ukatu gura digute. Ez gaude horren aurrean makurtzeko prest, eta horregatik, zilegitasun osoa aldarrikatu gura diogun herri plataforma eratzea erabaki dugu”, adierazi zien plazan batutako Gari Kortazarrek, manifestu bat irakurrita.

Kontzejupe herri plataforma sortzeko asmoz, orain dela hilabete inguru hasi zen herriko lagun koadrila bat lanean: “Herriko asko-



Hiru zutabe nagusiren ildotik lan egin gura du Kontzejupe herri plataformak.

tariko esparruak batu gura ditugu plataforma honetan, eta gainera, herriaren alde lan egingo duen plataforma dinamikoa eratu”, esan zigun ekitaldia hasi aurretik Euse-


bio Villarrek. Parte-hartzaileen esanetan, garrantzitsua izan zen joan den zapatuan herrian emandako urratsa. Orain, aldiz, sokari tinko eutsita lanean jarraitu behar,

badago zer egin-eta: EHNaren tramitazioa, Korrikari sostengua ematea... Plataformaren aldeko sinadurak batu eta gero, luntza izan zuten ekitaldian batutakoek.

Herriaren alde lan egin gura duen plataforma dinamikoa izan gura du Kontzejupek

Kontzejupe sortzeko asmoz, orain dela hilabete inguru hasi zen herriko lagun koadrila bat lanean

Parte-hartzaileen esanetan, garrantzitsua izan zen zapatuan emandako urratsa



Gaur inauguratu dute Udal Biblioteka

Iluntzean inauguratu dute Udal Biblioteka. 450 m² dituen liburutegian, liburuak ez ezik, euskari askotariko materiala izango dute herritarrek eskura. Gaur goizean, gainera, Arizmendi Ikastolako eta Luis Ezeiza Eskolako umek liburuaren lekualdatze sinbolikoa egin dute. Umeek, kate luzea osatuz, liburuak eskuz esku liburutegi zaharretik biblioteka berri-raino eraman dituzte. Oihulari Clown taldeko hainbat kide-ren laguntza izan dute horretarako. Ez da umorerik falta izan herriko kaleetan.

LABUR

Edorta Zubizarreta alkatea Goiena Telebistan

Martitzenean, hilaren 25ean, herriko alkate Edorta Zubizarreta izango da Goiena Telebistako Herrikan saioko gonbidatua. Saioa 20:30ean hasiko da. Saioaren lehenengo zatian, Alberto Gorritiberearen galderei erantzungo die Zubizarretak, eta herriaren gaineko hainbat bideo ere emango dituzte. Saioaren bigarren zatian, 21:15ean hasita, herriaren gainean berba egiteko Udaleko zinegotzi bat izango du lagun alkateak. Eta tarte horretan herritarrek ere izango dute berba.

TELEFONO JAKINGARRIAK

ESKORIATZA

Udaletxea	943 71 44 07
Udal bulegoak	943 71 45 32
Udalzaingoa	943 71 44 07
Euskaltegia	943 79 21 68
Kultura etxea	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea	943 71 31 36
Kirol etxea	943 71 53 28
Liburutegia	943 71 31 35
Luis Eceiza	943 71 53 56
Jose Arana Almen Ikastola	943 71 44 86
Almen	943 71 49 07
Museo Eskola	943 71 54 53
Axtroki	943 71 40 77
HUHEZI	943 71 41 57
Osakidetza	943 71 44 52
Telesko	943 71 49 17
Taxiak	943 71 40 59

BESTELAKOAK

Eskualde ospitalea (Arrasate)	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara)	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Ofiati)	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz)	945 23 20 30
PESA (Arrasate)	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate)	943 77 10 43
SOS Deiak	112

OHARRAK

'4L-MENTOS' ANTZEZLANA

Mò-house antzerki talde katalanak *4L-mentos* antzezlana antzeztuko du gaur, egubakoitza, HUHEZIn, 22:30ean.

BETAGARRIREN KONTZERTUA

Bihar, zapatua, Betagarrik kontzertua emango du gaztetxean, 22:00etan.

'HIRE HIMALAIA', IPUINAK, ETA TXOTXONGILOA

Alberto Inurrategik *Hire Himalaia* liburua aurkeztuko du astelehenean, 18:30ean; martitzenean, ipuin kontaketa izango da, 18:00etan; eta eguaztenean, Taun Taunek *Txi-txioka* eskainiko du, 18:00etan. Ekitaldi guztiak bibliotekan izango dira.

AXTOKIRENAGENDA

KORRIKAREN LAGUNTZAILEA

10 euroren truke, metro sinbolikoak erosi ahal izango dute gura duten herritarrek. AEKri laguntzeaz gain, laguntzaileak deskontuak lortu ahal izango ditu hainbat denda eta zinematlan.

UDAL AURREKONTUA/ Inbertsio handienak Santa Ana auzunea urbanizatzeko lanetan egingo ditu Udalak

Udalak ia sei milioi euroko aurrekontua onartu zuen otsaileko azken bilkuran

AMAGOIA LASAGABASTER

Otsailaren 13an egindako osoko bilkuran, 5,9 milioi euroko udal aurrekontua onartu zuten. Udalbatzarrerak hamar zinegotzi joan ziren, eta Ezker Batukoak izan ezik, gainerako zinegotziek aho batez onartu zuten 2003ko udal aurrekontua.

Joan den eguenean, hilaren 13an, udalbatzak 5,9 milioi euroko aurrekontua adostu zuen aurtengo ekitaldirako. Euskal Herritarrok taldeko bost zinegotziek, EA-EAJko hiru zinegotziek eta elizateetako zinegotziak aurrekontuen alde bozkatu zuten; Ezker Batuko ordezkariak, berriz, kontra bozkatu zuten. Osoko bilkuran PSEko zinegotzia bakarrik falta izan zen. Hala, aurrekontua, zehatz esanda, 5.888.074 eurokoa da.

AURREKONTUAREN BEHERAKADA

Iazkoarekin alderatuta, %8,5 jaitsi da aurtengo aurrekontua. Horren arrazoia da, besteak beste, aurrekontuaren inbertsioarako diru gutxiago bideratu dutela. Iaz, hiru milioi euro baino zertxobait gehiago gastatu zuten inbertsioan eta

2003rako aurrekontua	Aurrekontua, batzordea	Inbertsio aipagarrienak
Udala 5.705.777 €	Elizateak 376.308 €	San Anako urbanizazioa 380.000 €
Teleskori 114.167 €	Zerbitzuak 2.009.411 €	Ibarraundi baserrira 300.000 €
Udal Euskaltegiari ekarpena 68.130 €	Lehendakaritza 851.006 €	Elizateetako errepedeak 189.000 €
UDAL AURREKONTU OSOA 5.888.074 €	Kultura eta jaiak 313.173 €	Hainbat proiektu 143.200 €
	Kirolak 371.462 €	Udaletxeko lanak 150.000 €
	Hirigintza 865.872 €	Kanposantua 120.000 €
	Hezkuntza 81.094 €	Oztoko arkitektonikoak 90.000 €
	Gizarte Ongizatea 226.454 €	Kultura etxea 30.000 €
	Ogasuna 487.822 €	Informatikarako materiala 40.000 €
	Euskara 168.695 €	Argiak 90.000 €
	Turismoa 8.701 €	Kiroldegia 240.169 €
	Gazteria 39.401 €	GUZTIRA 1.772.369 €
	Emakumea 6.678 €	
	Ingurumena 26.410 €	
	GUZTIRA 5.832.487 €	

aurten, berriz, bi milioi eta erdi euro gastatuko dute. Horrek esan gura du inbertsioen atala %28 jaitsi dela. Aldaketa hori, batez ere, 2002an abian jarritako lanen ondorioz gertatu da. Iaz, liburutegi berria, Ibarraundi baserriko zaharberriaren lanak eta udaletxeko konponketa lanak egiten hasi ziren, eta horietan guztietan aurrekontu bakoitzeko askoz diru gehiago inbertitu zuten Eskoriatzako Udalak.

Gastuei dagokionez, aurrekontuaren ez dago aldaketa handirik: batzordeetan banatutako gastuen atalean, zerbitzuetan gastatuko dute gehien, bi milioi euro, gutxi gorabehera.

INBERTSIOREN AIPAGARRIENAK

Inbertsioen atalean, zati handi bat Santa Anako urbanizazio lanak ordaintzeko bideratuko du Udalak. Eskoriatzarrek, eta batez ere

Santa Anako auzokideek, horrenbeste itzarondako konponketa lanak egiteko ia 400 mila euro gastatuko ditu Udalak. Horrez gain, Ibarraundi baserria zaharberri-tzeko lanetan ia 300 mila euroko inbertsioa zehaztu du Udalak. Zertxobait gutxiago, ordea, 240 mila euro, kiroldegian inbertituko du. Besteak beste, eguzki energia lortzeko hainbat azpiegitura jarri gura ditu Udalak.



Zilarrezko Q saria Fagor etxeari

Eguaztenean, hilaren 19an, jaso zuen Eskoriatzako Fagorko Etxetresna Elektriko Txikien Sailak Zilarrezko Q saria. Kalitatea neurtzen duen Q preziatua dagoeneko beste bi alditan jaso du Fagorrek; izan ere, Egosketa Sailak baditu bai Zilarrezko bai Urrezko Q sariak. Eskoriatzan, eguaztenean, Josu Jon Imaz Industria sailburua eta Jesus Murga Euskalit Kalitaterako Euskal Fundazioko presidentea izan ziren, besteak beste, Fagorko arduradunekin. /A.G.

LABUR

Etxe guztietan jasoko dute aste honetan 'Gida 2003'

Dagoeneko eskoriatzar askok dute *Gida 2003* etxean, eta ez dutenek datozen egunotan jasoko dute. Arrasateko, Aretxabaletako, Eskoriatzako, Leintz Gatzagako eta Aramaioko dendek, enpresen eta partikularren telefonoak -horiek aurrekontuaren lehen aldiz- ere jasotzen ditu gidak azkeneko orrialdeetan. Koloreetan egin du Goienak 280 orrialde dituen *Gida 2003*. Edozein herritarrendako erabilgarria izatea du helburu gidak.

BEIRALAN KRISTALDEGIA



- Ispilu bizelatuak
- Ateentzako beirateak
- Beirate grabatuak eta landuak
- Bainugelako altzari eta manparak
- Neurri zehazterako armairuak
- Enmarkazioak
- Lantegietako mantenimentua
- Beiran naiz metakrilatoan neurritan eginiko edozelango lanak

Herriko plaza, 8 behea • Aretxabaleta • 943 79 81 78 / 670 997 274

SALON DE BELLEZA
OSASUNA ETA EDERGINTZA
DORLETA
Aranburuzabala, 22 behea
ESKORIATZA
Tfnoa.: 943 71 51 20

ENRIKE MAZMELA BOLINAGA
HORTZ KLINIKA
Eduardo Gorosarri, 3-1. Esk.
Tel: 943 71 47 36

Txalaparta taberna
Aranburuzabala 25
ESKORIATZA

HURRETIK/ Laura Pérez · GUREL ludotekako begiralea

“Desabantailak ere izango ditu, baina oraingoz, herritarrek gauzak egiteko adierazten duten grinak eman dit atentzioa”

Laura Pérez aretxabaletarra urria ezker Gatzagako ludotekako arduraduna da. Begirale izan da zazpi urtez. Arizmendi Ikastolako irakaslea da egun, baina irakasle praktikak Venezuelan egin zituen. Pozik dabil Gatzagan lanean. Herriak duen bizitasunak eman dio atentzioa.

Nolatan eskolaren esparrutik ludotekara lanera?

Ume txikien begirale izan naiz zazpi urtez. Orain, ikasketak amaituta, irakasle lanetan hasia naiz. *Goienkaria*-n ikusi nuenean Gatzagan ludotekarako begiralea behar zutela, animatu egin nintzen.

Eskolan edo ludotekan egon, umeen jokaera asko aldatzen da?

Ez du zerikusirik. Horrek ere animatu ninduen lanposturako aurkeztu nintzenean. Eskolan umeek oso dinamika zuzendua daukate; aldiz, ludoteketako dinamika guztiz bestelakoa da, askoz askeagoa, libreagoa da, edo izan beharko luke, nire iritziz.

Zer da, hortaz, zure iritziz, ludoteka bat?

Umeek euren kabuz jolas egiteko lekua. Umeak hain ohituta daude nagusiek esandakoa egiten, ezer agindu edo egitekorik eman ezean, askotan ez dute jakiten zer egin ere. Nik euren ekimenez abian jaritzen dituzten ekintzak eta jolasak bultzatu gura ditut ludotekan.

Betetzen da zure nahi hori Gatzagako ludotekan?

Baietz esango nuke. Hemen gustatzen zaie euren kabuz ibiltzea. Noizbait ekintza bereziren batekin etortzen banaiz ere, joko librearekin jarraitzea gurago izaten dute askotan.

Beste helbururik baduzu?

Bai. Besteak beste, txokotan banatu gura dut Gatzagako ludoteka, jolasari probetxu handiago ateratzeko asmoz; umeek euskara zuzen erabiltzea ere badut helburu; ekintza puntualagoetarako birziklatzea era landu gura nuke umeekin; Venezuelan izan nintzeneko diapositibak eman gura dizkiet...

Venezuelan eskolak eman zenuen.



Irakasle ikasketak egin nituen HUHEZIn, eta Venezuelara joateko aukera eskaini ziguten. Ez nuen aukera hura galdu gura. Esperientzia gogorra izan zen,

baina baita oso aberatsa ere. **Zer izan zen Venezuelan desberdina?**


Eskolaren funtzionamendua gurearekin alderatuz guztiz bes-

telakoa zen; neskak eta mutilak aparte jartzen dituzte gelan; himnoa abesten dute eskolak hasi aurretik... Irakasleek ez dute umeen hizkuntzarik erabiltzen, nagusiak balira bezala hartzen dituzte txiki-txikitatik. Gauza askorekin ez nentorren bat, baina mundua ere ezin izango dugu aldatu eta...

Talde bi dituzu Gatzagan: txikiak eta handiagoak. Zelan erantzuten dute?

Oso ondo. Ez dakit herri txiki baten bizi eta hezi direlako izango den, baina oso ume *sanoak* dira. Lotsa txikiagoa daukate, nire iritziz. Euren arteko harremana hemen estuagoa dela uste dut, zuzenagoa; beti daude bata bestearen etxean, irteerak ere elkarrekin egiten dituzte. Eta hori nabaritzen zaie hemengo umei. **Eta Gatzaga ezagutzen zenuen?**

Pasadan. Eta ezusteko ederra hartu dut. Herri txikiak dituzten desabantailak eta arazoak ere izango ditu agian, baina oraingoz, batez ere, herritarrek gauzak egiteko adierazten duten grinak eman dit atentzioa; zein bizirik eduki gura duten herria.



Toki Ederren konponketa lanak egiten

Arotzak hasi dira Toki Eder elkarte konpontzeko lanak egiten. Astebete inguru beharko dute bigak garbitu, lixatu eta zorua botatzeko. Horren ondoren, argiketariak, eskaiolistak eta pintoreak hasiko dira lanean. Gauzak behar bezala joanez gero, bizpahiru astean Toki Eder elkarte lanak amaituta egongo dira, Udalaren iritziz. 36.000 euroko aurrekontua dute lanok. Bestetik, elkarte batzordeak beste lan batzuk egin gura ditu elkartean, baina oraingoz ez dute adostasunik lortu Udalarekin.

LABUR

Korrika 13 dela eta, herria hasi da prestaketa lanetan

Dorleta Elkorobarrutia da Korrika 13ren koordinatzailea Gatzagan. Eta oraindik aste batzuk falta diren arren Korrika Mauletik Iruñera abiatzeko, Gatzagan ere, beste herri askotan moduan, hasi dira prestaketa lanak egiten.

Izan ere, kordinatzaileak herriko elkarteetako kideekin lehenengo batzar informatiboa egin du. Dorletak esan digunez, erantzun ona jaso zuen, eta oraindik gauzak zehazteko dauden arren, jendea lanerako gertu dago.

LENIZ, C.B. KONPONKETAK

LENIZ
ESKORIATZA

TXAPA, MARGOA
eta MEKANIKA

Aingeru Ibiltokia, z/g. • Tfnoa.: 943 71 50 61

AZKOAGA
ESTANKOA

943 71 48 77
Zure
Zerbitzura

ALZA

- Sukaldeko Bateriak
- Lapiko Lasterrak
- Zartakin eta Paeilaontzi itsasgaitzak

Aingeru Ibiltoki 3
Tel.: 943 71 31 29 Eskoriatza 20540

Aretxabaleta eta Eskoriatzako taberna eta jatetxeen gida


hemen bada giro!



Matikua jatetxea

Azatza auzoa ARETXABALETA 943 79 16 68

GOYARAN ERRETEGIA



Eguneko menua

Solohaundi 25 Aretxabaleta 943 79 68 57

LAGUNAK

DASTALEKU

Tel. 943714063

Gustora egoteko!

Intxaurtxueta 8. ESKORATZA

Taberna Berri



Durana 26, ARETXABALETA. 943 79 20 67

**URBALTZ
TABERNA**



Mitarte, 21 behea
Tfnoa.: 943 79 79 79
ARETXABALETA

**Dorleta
taberna**

Bezeroen zerbitzura

Loramendi, 8
ARETXABALETA
Tel.943 79 94 15

HIRUSTA JATETXEA

Zatoz gure sukaldean ezagutzera



Ilargi plaza 4. Tel. :; 943 79 06 57

Amets taberna



Taberna eta kafetegia
Iparragirre 4. 943 79 01 29

JOSU

*taberna
harategia*

Urdaitegia-gozotegia
Kroasantegia
Gertatutako janariak

Mitarte 1
Tel.. 943 77 03 08



**IBARRA
JATETXEA**

Menua
eta
karta

Araba ibilbidea 29
ARETXABALETA
943 79 18 03



Mitartegarakai



Areantza auzoa, Aretxabaleta
943 79 17 51



Zatoz gure musikaz gozatzera

Mitarte 9 ARETXABALETA Tel: 943 79 92 01

ESKORATZA

**Bazkariak
eta
afariak**

Tfno 714345



ERRETEGIA

MENDIOLA

Mendiola auzoa
ESKORATZA
943 71 43 45
Astelehenetan
itxita

BASABE

Menuak eta afariak



Basabe poligonoa ARETXABALETA 943 79 91 84

Aretz
taberna



ORDUTEGIA:
Astelehenetik ostiralera
9:00etatik zabalik
Astebukaeretan
11:00etatik aurrera

Markole, 5 behea
Tel.: 943 79 14 67
ARETXABALETA



atseden

CYBERCAFE

LASTER ZABALIK

araba ibilbidea 27 aretxabaleta